

## 1) abiapuntua: Gure auzo eta gizartea

Donostiako Parte Zaharrean bizi gara eta gure auzo eta herria estimatzen ditugu. Gure ekintza hezitzaileak gizarteko arlo ezberdinetan presente egon nahi du: arlo kultural, politiko eta sozialetan. Gure auzoa Donostiako erdigunean aurkitzen da. Bertan antolatzen dira hiriko ekintza kultural asko. Baina, era berean, bertakook ez dugu inolako kirol gunerik, adibidez. Pertsonak baztertu, zapaldu edota bere eskubideak zapaltzen zaizkion arazoetaz jabetuz gizartearen egiturak aldatu nahi ditugu.

Kultura euskaldun eta gure hizkuntza-euskara suspertu nahi ditugu gure ekintza guztien ardatz bezala. Hala ere, gainerako herrien errealitate eta arazoetara irekirik egon nahi dugu.

Gure herriko arazo politikoetatik ez dugu ihes egin nahi eta Euskal Herriko biolentzia eta eskubide ukatzeen arazoekin bat egiten dugu. Gure laguntza eta babesa eskainiko diegu hildakoen senideei, mehatxatu eta espetxeratu etab eren senideei. Irtenbide demokratiko eta kultura bakezale eta tolerante batean hezteko balore zehatzak proposatu nahi ditugu.

Gure auzoan ere gizartearen desoreka sozialaren zantzuak ageri dira: etxerik gabekoak, toxikomanoak, etorkinak eta bakardadean bizi diren adinduak. Egoera hauetaz jabetuz gure proposamen hezitzaileak hau hartuko du aintzakotzat.



## 2) gure eskaintza: Fedea eta kristau elkarteak

Xirimiri Gazte Taldearen oinarria fede heziketa da. Taldeak aukera bat egin du alde zurretik, San Bizente kristau elkarteak hala eskatzen diolako: fededunak gara eta zehazki, Nazaretoko Jesusengan sinisten dugu. Gutako bakoitza, gazte, begirale, laguntzaile edo guraso izanik, bere mailan aurkitzen da, baina fede heziketako



talde bat garelako adierazten dugu.

Bakoitzaren errealitateak abiatzen gara eta guztien aukera eta egoera pertsonalak aintzakotzat hartuz, gure nortasun-izaera nonahi agertzeko lotsarik ez dugu.

Fedea ez dugu ulertzen inposaketa bezala, aukera eta esperientzia pertsonal bezala baizik. Gure eginkizuna hauxe izan nahiko luke: proposatu, sakondu eta sendotu, gazte bakoitzak bere mailan-garaiari aukeraketa bate gin dezan eta, nahi badu, onar dezala.

Hau honela izanik, begiralek ere fede prozesu batean aurkitzen gara, besteek eskaintzen dieguna guk geuk bizi izanez lehenbizi.



Xirimiri Gazte Taldearen fede aukera ez du bakoitzak bere baitan gordetzen. Sinisten duguna plazaratu nahi dugu gure bizitzako arlo ezberdinetan: familian, ikasketa-lantokian, bikotearekin, koadrilan...

Gure helburu nagusienetakoaz era da: Xirimiri Gazte Talde agure inguruko gazteentzat fedea esperientzia bezala bizitzeko GUNEa proposa gerta dadila. Ekintzetan gauzatuz, Xirimiri Gazte Taldeak fede proposamena egin dezala eta gazteek, askatasunez, elkarteak kristau izateko bidea egin dezatela.

## 3) nola: fede heziketa taldean biziz

Murgilduta gauden gizarte eta auzoa kontuan izani keta geure fede aukeran oinarrituz, honako Gizakia dugu helburu:

### Nor bere buruaren jabe

izango den pertsona autonomoa, konszientea, egoerena aurrean erabakiak hartzeko gai izango dena. Nortasuna sendotzen, beren printzipioetan oinarrituz kritikotasuna gara dezaten, baina besteentzat irekiak egingo dituen beti ere.



Bere baitan daramatzan giza baloreak beregan eta besteengan aurkituko dituen. Galtzeko bidean dauden baloreak (dohainik jokatzeko ahalmena, alaitasuna, solidaritatea...) aurkitu ez ezik praktikara eramango dituen.

**Federa ireki** dena. Gainerako baloreak ere iristeko eginahalak egiteaz gain, heldutasunarekin batera datozen gizakiaren galdera sakonei erantzuten lagunduko baitie.

Beraiengan eragina duen **ingurunean erantzukizunez txertatzen** dena. Gizarte mailan (toxikomanoak, etorkinak, adinduak...), maila kultural (euskara) et apolitikoan (hildako, mehatxatu, espetxeratu eta senideak) azterketa eginez hasi eta haien aldeko konpromisoa bultzatu nahi dugu.

Helburuok lortzeko, honako ezaugarriak dituen pedagogia jarraituko dugu:

Heziketa **osoa**, pertsona bere osotasunean hartzen duena, elkarbizitarako baloreak transmititzen dituen eta galdera oro egitera bultzatuko dituen.



**Askatzailea**, menperatzaile eta menperatu elkarren kontra jarriak egotearen rollak (adb.: hezitzaile-gazte)

gaindituko dituen. Zentzu **kritikoa** emango diena, ikusle pasibo izatea baino jarrera proaktiboago bat bultzatzen duena, errealitatea eraldatzeko konpromisoa har dezaten. **Eraginkorra**, EKINTZA-GOGOETA-EKINTZA metodoa erabiliz. Horretarako gaztetxo behar eta ahalmenei begira, haiek ardatz izanik, haien jokaera eta dinamismoaz baliatuz EKINTZAK burutuko ditugu. Helburua gogoeta bideratzea da.

Heziketa garatzeko honako baliabideak ditugu: **Taldea**: elkarrekikotasuna eta solidaritatea garatzeko esparru nagusia. **Gazte Taldea (Xirimiri)**: nortasuna, ingurunean onarpena duena.

**Gazte Pastoraltzako heziketa**



**ibilbidea**: Jesusen baloreetan oinarritutako fede-heziketa egin nahi dugu. Parrokia eta elizbarrutiko proiektuetan txertatzen denez, bertan presente gaude.